

Baiona - 2007ko maiatzaren 5ean
2007ko edizioa



hitz *a*ditza


Zuzen idaztea da giltza!

Arantxa Hirigoyen
«Haur sortu berri baten gogoetak»

Laguntzaileak



EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA
INSTITUT CULTUREL BASQUE



«Haur sortu berri baten gogoetak»

Arantxa Hirigoyen

2

■ Gaur berriz ere, orenak eta orenak egon nintke gure haur sortu berriari begira. Geldi-geldia bere sehaskan etzanik, begiak erne, belarriak xut. Zer pasatzen ote zaio burutik ? Zeri pentsatzen ote du ?

Mundura jin berria, hain arin eta ttipi, iduri luke batzuetan gure joan-jinak segitzen dituela, gure eguneroko solasak konprenitzen dituela eta zenbait aldiz ere, elkarrizketan parte hartu nahi duela. Bere maneran igortzen dizkigu mezuak : gose delarik, kexu delarik edo min duelarik. Sortu berriaren komunikazio sistema ? Negarra.

«Haur sortu berri baten gogoetak»

Arantxa Hirigoyen

3

Gure niniak ez ditu oraino komunikatzeko sistema berriak ezagutzen. Gaurko egunean, alta, teknologia berriek komunikatzeko eta idazteko tresna berriak sortu dituzte. Zaku horretan sakeleko telefonoak eta nola ez haien SMS mezu laburren komunikazio sistema dugu. Komunikazio molde honek, gazteen artean bereziki, fite eta labor idazteko beharra ekarri du. Zer trebezia! Eri puntarekin saka eta saka begi kliska batez mezua igorria eta beste begi kliska batez erantzuna begipean. Dударik ez da tresna ttipi horrek sekulako aldaketak eragin dituela gure ohituretan eta jendeen arteko harremanetan.

«Haur sortu berri baten gogoetak»

Arantxa Hirigoyen

4

Nola bizi ote ginen lehen mugikorraren beharrik gabe ? Orain, nonahi eta noiznahi atzematen dugu norbait sakeleko telefonotik hitz egiten edo gure esku ahurrean kokatzen den tresna horretatik bizpahiru mezu denbora berean bidaltzen. Beharrezkoa ere bilakatzen ari da zenbait gazteentzat, horrelakorik ez duenari mespretxuz begiratzuz gainera. Zenbat kalapita eta buruhauste aita-amekin, zenbat abisu eta mehatxu gurasoengandik. Sosa behar baita gisa bereko asmakuntza baten jabe izateko. Eta nork ordaindu behar ote ditu hilabeteroko zor agiriak?

«Haur sortu berri baten gogoetak»

Arantxa Hirigoyen

5

Gure haurñoari so, bere esku ñimiñoak ferekatuz etorkizunari buruz hausnartzen hasi naiz.

Zer ezagutuko ote dute gure seme-alabek? Eta nola jokatu ote dugu guhaurek? Hasteko, teknología garatuenak ere, ez du ene aitzinean dudan asmakuntzarik xoragarri eta preziatuena gaindituko sekulan. A! Preseski, mezu bat igorri dit oraintxe, lehenbailehen ihardetsi behar diot.

Gaur ere orenak eta orenak egon ninteke gure haur sortu berriari begira...



emaitzak www.eke.org atarian

- * Testuak
- * Sariak
- * Argazkiak...

Euskal kulturaren web ataria

AKE .ORG

The screenshot shows the AKE .ORG website interface. The header includes navigation links for 'Albisteak', 'Agenda', 'Loturak', 'Argazkiak', and 'Estranola'. Below the header, there are tabs for 'Euskal Herria', 'Euskara', 'Kultura', 'Ondarea', 'Kultura eragileak', and 'Euskal Kultur Erakundea'. The main content area is titled 'Hitzaditza 2006 : idazleak eta testuak' and is divided into two columns: 'Idazleak' and 'Testuak'. The 'Idazleak' column lists authors with their photos, names, and brief biographies. The 'Testuak' column lists the titles of their works.

Idazleak	Testuak
<p>Eneko Bidegain</p>  <p>31 urte ditu kazetari lapurtarrak. Uztartzen sortu zen eta Berria egunkarian egiten du lan, egun. Bertso programa bat egiten du Gure Irratian. 2005ean bere bigarren eleberria kaleratu du. Urte hartan Bertsulari Txapelketa Nagusian epaile izan da ere bai.</p> <p>Harremanetan jarzeko... (argazkia : www.sautrela.com)</p> <p>Nobelak Anbroxio, 2002 (Elkar) Mahatsaren begia, 2005 (Elkar)</p>	<p>Izenburua : Malla : Errexa</p>
<p>Aurelia Arkotxa</p>  <p>Euskara eta euskal literatura irakaslea Bordaletako Michel de Montaigne unibertsitatean. Ikertzailea IKER-en. Lapurdum agerkariaren zuzendaria. Euskaltzain urgazlea.</p> <p>Kronika idazlea Berria egunkarian.</p> <p>Harremanetan jarzeko... (argazkia : www.sautrela.com).</p> <p>Nobela Septentrio, 2001 (Alberdania) Poesia Atari ahantziak, 1993 (Pamiela)</p>	<p>Izenburua : Malla : Errexa</p>

On the right side of the page, there is a section titled 'Hitzaditza 2006' with sub-sections for 'Noiz', 'Non', 'Izen-emateko epea eta aukerak', 'Antolatzaileak', and 'Xehetasunak'. The 'Noiz' section lists the date '2006ko maiatzaren 6an, larunbatez, 9:30etan'. The 'Non' section lists the location 'Baionako IUT-en (Jean Darrigrand etorbidea, 3)' and provides contact information for EKE and AEK. The 'Izen-emateko epea eta aukerak' section lists the deadline '2006ko maiatzaren 3a' and provides contact information for EKE and AEK. The 'Antolatzaileak' section lists 'Euskal kultur erakundea' and 'Iparaldeko AEK'. The 'Xehetasunak' section includes a link to 'Prentsa-txostena'.